

CULTURA

Patrice Dumora kantariak emango dio gaur hasiera ‘Iparraldea bertan!’ zikloari

Akelarreko abeslari ohiaren ondoren, hilaren 12an Dirassar kazetaria ariko da. Ondorengo asteetan Otxalde folk taldea eta Berzaitz entzun ahal izango dira

FELIX IBARGUTXI | DONOSTIA.

DV. Inoiz baino musikalago dator aurtengo *Iparraldea bertan!* zikloa: disko berri bana atera duten hiru talde edota kantari entuteko aukera egongo da gaur hasi eta ondorengo hiru asteetan zehar. Hasteko, gaur Patrice Dumora, Akelarre taldeko abeslari ohia ariko da 19:30ean; diskoa atera du duela gutxi, pop-rock akustiko estiloan, era minimalistan: bi gitarra eta bateria bat. *Watson* du izenburu kantari beterano honen emaitzak.

Koldo Mitxelena Kulturuneak eta Euskal Kultur Erakundeak antolatzen dute *Iparraldea bertan!* ekimena. Helburua izaten da Iparraldeko kultur emaitzak ezagu-tzera ematea hemen, eta aurtengoa zortzigarren urtea izango da. Emanaldi guztiak 19:30ean izango dira, Donostiako KMn.

Patrice Dumora diskoko bi lagunekin azalduko da gaur Koldo Mitxelena Kulturunera: Nat Cazarré (gitarra) eta Zedrik Ilhardoyren (bateria). Baziren hamar urte Dumoraren ahotsa ez zela disko batean entzuten. *Watson* honetako testu gehienak malenkonia-tsuak dira.

Hilaren 12an, berriz, Janbattitt Dirassar kazetari beteranoaren hitzaldia entzun ahal izango da. Gaia «Ipar Euskal Herriak ezagutu dituen aldaketak» izango da eta Euskal Kultur Erakunde zuzendaria den Pantxoa Etchegoinen galderi erantzunez ariko da Dirassar. Bera izan da *Herria* astekariko zuzendaria azken bost urteotan, eta aurretik beste 35 urtez aritu zen *Sud-Ouest* egunkarirako lanean. Ohorezko euskaltzaina ere bada eta bi nobelaren egile: *Biho-tzeko mina* eta *Hegiko bordatik*.

San Jose bezperan

Hurrengo osteguna San Jose eguna denez, hilaren 18ra aurreratu da Otxalde taldearen emanaldia, bere *Ameslari* disko berriko kantuekin. Beskoizeko Beñat eta Marc Eiherabide anaien folk talde honek laugarrena du disko hori. Besteak beste, abertzaleen batasuna aldarrikatzen du. Familia giroko taldea da Otxalde, zazpi lagun ez osatua, eta grabazio berri hau Beñaten etxeko sukaldean egin zen. Horko letra batzuk Itxaro Bordak idatziak dira, eta badira duela hilabete batzuk hil zen Ernest Alkat bertsolariaren letrak ere.

Hilaren 26an, berriz, Pier Paul Berzaitz zuberotarra izango da kantari, lau musikarirekin batera: Karlos Gimenez (pianoa), Txema Garces (bajua), Xanet Arozena (gitarra) eta Francisco Herrero (biolina). Jakina denez, orain hilabete batzuk diskoa plazaratu du Berzaitzek, Allande Oihenart XVII. mendeko poetaren olerkiak hartuta. KMko kantaldi honetan, horko ale batzuk ez ezik, bere ohiko errepertorioa ere erabiliko du Berzaitzek. Beste bi poeta ere ohoratuko ditu: Pierra Topet-*Etxahun Barkoxekoa* eta Pierra Bordazarre-*Etxahun Iruri*.